

URRETXU / 'Bibliopiszina' txoko berria dauka Pagoetako igerilekuak

Udalak 2.250 euroko inbertsioa egin du aurten uda garaian herritarrei liburuak gerturatu ahal izateko

Miriam Luki

2001. urtean antolatu zuten lehenengo aldiz Bibliopiszina ekimena Pagoetako udal igerilekuetan. Aurten liburu eta aldizkariak eskainiko dituen txoko berezia ipini du Udalak.

Igerilekuko liburutegia hilaren 28ra arte egongo da irekita, 15:30etik 20:00etara. Egitasmoak hasieratik oso harrera ona izan du herritarren artean. Horregatik urtez urte errepikatu egin dugu, eta aurtengoan inbertsio berezia ere egin dugu, dio Miren Castillo Urretxuko kultur teknikariak. Inbertsio hori 2.250 eurokoa izan da. Biblioteka berezirako stand bat erosi su Udalak. Txoko horretan 236 liburu jarriko dituzte aukeran, euskaraz eta gaztelaniaz. Liburu bilduman adin guztietako irakurleentzako lanak aurki daitezke. Izan ere, liburutegiak aisialdirako irakurketak biltzen ditu: liburuak, aldizkariak eta prentsa.

Irakurtzeko materialaz gain, Bibliopiszina-n haur eta gaztetxoentzako jokoak ere badira.

Mailegurik ez

Pagoetako igerilekuan jarri duten materialak ez dituzte maileguan emango. Liburu, aldizkari eta egunkariak igerilekuan irakurri ahal izango dira soilik, eta handik ateratzerakoan Bibliopiszina-ra bueltatu beharko dira. Urretxuko udal liburutegia goizetan egongo da irekita, eta arratsaldetan Bibliopiszina.

Aurtengoan prentsa ere eskuragarri izango dute herritarrek Ane Arana Urretxuko udal liburutegiko arduraduna da, eta, bide batez, Bibliopiszina-ren kudeatzaile ere bai.

Igerilekuko irakurketa txokoan 236 liburu jarri dituzue aukeran aurten... Bai. Orain arte liburuak liburutegitik ekartzen genituen edota Bibliopiszina-rako erosten genituen. Aurten txoko berria erosi dugu eta duela gutxi kaleratutako eleberriak eta hilabete honetako aldizkariak egongo dira. Gainera, aurten prentsa ere eskuragarri izango dute herritarrek. Lau egunkari ezberdin ekarriko ditugu igerilekura.

Zein hizkuntzatan irakurtzeko aukera izango da?

Euskaraz eta gaztelaniaz. Liburu, aldizkari eta egunkariak euskarazkoak eta erdarazkoak izango dira, eta ingelesez irakurtzeko aukera ere emango dugu aurten.

Aurreko urteetan nolako arrakasta izan du ekimenak?

Oso handia. Ikusi beharko dugu eguraldiarekin zer gertatzen den.

Bibliopiszina-ko eskatzailearen soslaia zein da?

Gehienak umeak izan dira aurreko urteetan. Hala ere, aurten helduentzako eskaintza zabaldu dugu.

Liburutegian nabaritzen al duzu igerilekuko txokoaren irekiera?

Batez ere irailean nabaritzen da, jendea han ikusitako liburuen bila etortzen baita.